

Itzulpenak Espainian izan duen historia eratzen: molde historikoko hiztegi entziklopedikoa egitea*

FRANCISCO LAFARGA (Universitat de Barcelona)

LUIS PEGENAUTE (Universitat Pompeu Fabra)

Itzulpena: Pello Goikoetxea

Esan beharrik ere ez dago azkeneko urte hauetan ikerketa gai pribilegiatu bihurtu zai-gula itzulpengintza Espainian. Izugarri ugari-tu dira zientzialarien arteko solasaldiak, batzar-rak, jardunaldiak nahiz beste topaketa mota batzuk, eta baita itzulpenaren inguruko aldiz-kariak eta bilduma espezializatuak, monogra-fiak eta doktore tesiak ere. Eta, horien guz-tien artean, itzulpengintzaren historiak toki handia hartu du. J.C. Santoyok, konparazio baterako, 1987an argitaratu zen *Traducción, traducciones, traductores: Ensayo de bibliografía española* zioen penatxo zuela autore espainia-ririk ari ez zelako itzulpengintzaren ikerketan; 1996an, berriz, aire berri batzuk ikusten zi-

rela zioen *Bibliografía de la traducción en español, catalán, castellano y vasco* lanean. Egia da Latinoamerikan argitaratutako lan askoren erreferentziak ageri direla hor, baina, hala ere, ikaragarritzko lan pila da: 4.800 titulu, gutxi goiti-beheiti. Itzulpengintzari diziplina ugaritatik ekin dakiokenez, hurbilpenak ere bariatuak dira oso. Dena dela, historiaren alderditik begiratzen diotenak dira denetan uga-rienak. Hala, F. Navarrok (1996) bildutako beste errepertorio bibliografiko batean, 235 sarrera heldu dira (1985-1995 bitartekoak bakar-bakarrik) itzulpengintzaren historiaren atalean (guztien %10 ia), nahiz eta itzulpen teoriaren sailean dauden batzuen batzuk ere

* Lan hau Kataluniako Gobernuaren *TRELIT-Traducción y recepción de las literaturas* ikerketa talde finkatuaren eta Hezkun-tza eta Zientzia Ministerioaren HUM2006-12972-C02-01 eta HUM2006-12972-C02-02 ikerketa proiektuen baitan egiten diren jardueren barruan egindako lana da, FEDER funtsetatik finantzatua, zati bat. Lehenbiziko bertsioa (gaztelaniaz) L. Pegenaute, J. DeCesaris, M. Triàs eta E. Bernalek argitaratuko dute, Bartzelonan. Izenburua: *La traducción del futuro: mediación lingüística y cultural en el siglo XXI*. I. Bolumenta: *La traducción y su práctica*.

sartu litezkeen. Valero Garcesek (2000) dio 1980 eta 1998 bitartean 3.000ren bat titulu argitaratu zirela Espainian (liburuak eta artikulak) itzulpenaren inguruan, eta horietako %24 historiarekin lotua zela. Produkzio bibliografiko horren guztiaren xedea ez da, jakina, gure herrialdean egindako itzulpenaren historia egitea, baina toki handia hartzen du eginkizun horrek. Gainera, atzerrian egindako lanak ere erantsi behar ginezkieke horri, Espainiaren historia guztian itzulpengintzaren gaineko kontuekin egindako lanak. Era berean, esan dezakegu izenburuan itzulpengintzarik ageri ez arren, toki nabarmen askoa duela itzulpengintzak literatura konparatuan, espainiar literatura-aren testuingurua harrera gunetzat hartzen duten lan asko eta askotan.

Edozein moduz ere, eta gai honek interesa sortu badu ere, oraindik ere falta ditugu erreferentzia obra batzuk (beste hainbeste esan liteke itzulpengintzako beste ikerketa gai batzuen gainean ere). Egia da —orain arte esaten ari garen bezala— lan asko dauzkagula —eta lan bikainak asko eta asko— gai puntual batzuen gainean (halako itzultzaile, itzulitako egile, itzulpen eta abarren gainean, eta baita aro jakin baten gainean ere), baina orain dela gutxi arte ez dugu ikuspegi osoko lanen argitalpenik izan. Beste alde batetik, ez dago ukatzerik Espainiako itzulpengintzaren historiak oso toki txikia izan duela kanpoan. Esate baterako, H. van Hoofen (1991) *Histoire de la traduction en Occident* lan ezagunak ez du kapitulu bat bera ere Espainiarentzat, eta 1998an artikulua bat argitaratu bazuen ere, inolaz ere ez zuen estali laurogeita hamaikako lanean utzitako hutsunerik. Espainiako

itzulpengintzaren historiaren beste laburpen bat A. Pymek 1998an *Routledge Encyclopedia of Translation Studies* entzat egindakoa da. Lan laburra da, halabeharrez (9 orri, bi zutabetan), eta ez du irakurle kurioso samar baten jakin-minik asetzen. Hala ere, ez dugu ahaztu behar —bidezkoa baita egiaz zor zaiona aitortzea— liburu gisa argitaratu zen aurreneko lan osoa kanpoan atera zela: italiaraz argitaratutako testu bat, 80 orrialdekoa, M^a del Carmen Sanchez Monterorena (1998). Dena dela, esan dezagun nahiko oharkabean pasa dela, eta ez dela asko aipatzen espainiar bibliografian. Itzulpengintzaren historiako elementuak eta Erdi Aroko eta Urrezko Mendeetako itzulpengintzaren gaineko pentsamendua konbinatzen ditu Sanchez Monterok lan horretan; beste gaitetiko garaiez, ordea, itzulpenari buruzko diskurtsoaren inguruko kontsiderazio batzuk besterik ez ditu egiten. Aldiak mendez mende sailkatuta egituratuta dago lana. Bi milagarren urtean, ordea, ikuspegi osoa eskaintzen duten bi lan atera ziren, nahiz eta oso orientabide desberdinak dituzten biek: *Negotiating the Frontier: Translators and Intercultures in Hispanic History*, A. Pymena; eta *Aproximación a una historia de la traducción en España*, J. F. Ruiz Casanovarena. Aurrenekoa ibilbide bat da, autoreak Espainiako itzulpengintzaren historian eredugarri jotzen dituen hamabi alditan egiten duena, XII. mendean hasi eta gaur arte. Denbora aldetik zati batzuk besterik hartzen ez baiditu ere, mende askotako tartearekin gertatu ziren fenomenoaren arteko lotura batzuk egiteko modua ematen du lan horrek, eta gaur gertatzen diren gauza batzuk orain baino dezente lehenagokoak direla erakus-

ten saiatzen da. Ruiz Casanovaren lanak, berriz, izenburu apala eta zuhurra du, baina, aitzindari izateaz gainera, badu beste meritu bat ere: ikuspegi historiko bat erakustea, itzulpengintzaren —literatur itzulpengintzaren— historia literaturaren historiarekin eta literaturan kronologikoki izan diren aldi ezagunekin lotuta (Erdi Aroa, Urrezko Mendek, XVIII. mendea, XIX.a eta XX.a). Kapitulu guztien hasieran epigrafe bat du, “Hizkuntza eta literatura” izena duena eta testuinguru linguistiko eta literarioaren berri ematen duena, itzulpengintza beste praktika kultural bat gehiago bezala txertatzeko. Ikuspegi historiko-kronologiko hori bera du, nahiz eta planteamendua eta elementu batzuk ez diren lehengoaren berdin-berdinak, orain arteko lanik berrienak: *Historia de la traducción en España*. Lan hori F. Lafargak eta L. Pegenautek argitaratua da (2004), zenbait espezialistaren laguntzarekin (M. Gallego Roca, F. Lafarga, J. M. Mico, L. Pegenaute, J.-C. Santoyo eta M. A. Vega gaztelaniazko kulturarako; J. Pujol, J. Solervicens, E. Gallen eta M. Ortin katalanekorako; C. Noia galegokorako; X. Mendiguren euskal kulturarako). Lan horren helburua itzulpengintzak Espainian hainbat aldi historikotan izan duen egoera erakustea da, itzulpen jardunaren gaineko erreferentziak eta indarrean diren itzulpen-jardueri edo aldi bakoitzean gehienek onartutako jardueri buruzko aipamenak konbinatuz. Kapitulu bakoitzak, oro har, alderdi hauek jasotzen ditu: literatur itzulpenen aniztasuna —aipamen batzuk eginez, batzuetan, literatura ez diren testuei ere—, itzulpengintzaren barruan diren eragileak (itzultzaileak, mezenas edo itzulpenaren bultzatzaileak, ar-

gitaletxeak eta abar), itzulpenen eta itzulpen pentsamenduaren arteko harremanak, itzulitako literaturaren harrera, eta itzulitako edo inportatutako literaturaren eta literatura autoktonoaren arteko lotura. Espainian hizkuntza eta kultura aldetik den dibertsitatea kontuan izanik, kapitulu espezifiko batzuk izango dira gaztelania ez beste hizkuntza (katalana, galiziera eta euskara) eta kulturen egoeren berri aparte jasotzeko. Historiagatik eta kantitateagatik, tarte handiagoa du gaztelaniazko itzulpengintzak, eta, alde horretatik, hainbat ataletan zatituta dago.

Itzulpengintzaren ikuspegi historikoa egin eta gero, aurren-aurreneko lanetako bat itzultzaileen izaera eta lana zehatzago azaltzea da, eta kultura unibertsaleko egile eta obra handien itzulpena eta harrera. Eta helburu horixe du, hain zuzen ere, *Diccionario histórico de la traducción en España*: orain arte barreiatuta, osatu gabe eta modu askotara zegoen informazioa biltzea. Lana —laster argitaratuko du Gredos etxeak— bi ardatz handiren inguruan egituratuta dago. Alde batetik, kultura hartzailea izango da (gaztelania bakarrik ez; Estatuko gainetiko hiru hizkuntzak ere bai). Ardatz hori, Espainiako itzultzaile esanguratsuen zerrenda batek osatuko du —itzultzailearen lanaren kalitateari, garrantzia historikoari edo itzultzailearen izaeraren indarrari begiratuta esanguratsuak direnak (esate baterako, idazle, politikari edo intelektual gisa inportanteak izan direnak; itzulpengintzaren sailetik kanpora ere nabarmendu diren pertsonak, alegia)—, eta baita itzulpengintzan bitartekari izan diren beste pertsona edo entitate batzuek (editoreak, argitaletxeak, itzulpen bildumak edo sailak, itzulpengintzarekin

lotutako erakundeak, itzulpen sariak...) eta itzulpenaren teoriarari nahiz kritikoek ere. Eta, beste aldetik, kultura igorleak izango dira. Hor, literatura unibertsaleko egile eta obra handiak izango dira, eta kultura hartzailean tokirik handiena izan duten kultur arloak.

Hiztegi entziklopediko handien moldean eraturako lan honek atzerriko itzultzaileak bezala egileak ere bildu nahi ditu, alfabetoaren hurrenkeran antolatuta. Sarrerarik gehienak antroponimoak badira ere, literatura nazional nagusien gaineko sarrera orokor batzuk ere izango dira (Italiakoa edo Poloniakoa, konparazio baterako), katalanetik, galizieratik eta euskaratik (hurrenez hurren) gaztelaniara egindakoak eta baita edozein hizkuntzatatik (baita gaztelaniatik ere) katalanera, galizierara eta euskarara egindako itzulpenak ere, literaturaz kanpoko sarrera batzuez gainera. Liburuak prestatzeko planifikazio eta antolaketa lan ikaragarria ekarri du; izan ere, liburuak izango dituen 850 sarrerak 400en bat erredaktoreen artean eginak dira. Erredaktore horiek denak ospe handiko espezialisten artean eraturako aholku batzorde batek koordinatu ditu, eta hark egin du, hala berean, sarreren katalogoa, sarrera horiek egiteko egokienak jo dituen erredaktoreekin bat egiteko lana eta gainbegiratze lana ere. Bereziki zaila izan da alor bakoitzari zer toki zegokion izendatzea, garrantzia erlatiboaren arabera, eta sarrera bakoitzari zegokiona, irizpide horren arabera. Atzerriko egileen sarrerei dagokionez, oso kontuan izan behar dugu lan honetan izan duten tokia neurtzeko irizpidea —are *Hiztegian* sartzeko modukoak izatea edo ez izatea ere— testuinguru hartzailean izanda-

ko eragina edo garrantzia izan dela, eta ez haien literaturan edo literatura unibertsalean izandakoa.

Kultura eta hizkuntza igorleen atala honela eratu dugu: greziar literatura (Javier Martinez Garciak koordinatu du), latindar literatura (Jose Luis Vidalek), hizkuntza semitikoak (Salvador Peñak), Ekialde Urruna (Albert Galvanyk), frantsesera (Angels Santak), italiar literatura (M^a de las Nieves Muñizek), portugesa (Elena Losadak), ingelesera (Julio-Cesar Santoyok), alemanera (Miguel Angel Vegak), herrialde eskandinaviarrak (Enrique Bernardezek) eta eslaviarrak (Fernando Presak). Alor horretan hiru eratako sarrerak izango dira: espainiar kulturaren historian eragin berezia izan duten atzerriko kultur eremuen gaineko sarrera orokorrak, literatura eta pentsamendu unibertsalean izan diren egile handien gaineko sarrerak eta garrantzia berezia duten obra anonimoak (*Biblia*, *Korana*). Kultur eremuen gaineko sarreretan ikuspegi panoramikoa dator, denboraren arabera aurkeztuta, eta ahalegina egin dugu *Hiztegian* ahots propiorik ez duten egileei boza ematen, ahalik eta hiztegirik osatuena izan dadin. Eremu hauek aukeratu ditugu: greziera klasikoa, greziera modernoa, latina, arabiera, hebreera, txinera, japoniera, indiera zaharra, frantsesa, frankofonia europarra, frankofonia amerikarra, frankofonia afrikarra, italiarra, portugesa, brasiler, portugez hizkuntzako afrikarra, ingelesera, ingeles hizkuntzako kanadarra, ingeles hizkuntzako afrikarra, ingeles hizkuntzako indiera, australiarra eta Zeelanda Berriarra, alemana, Austriako alemana, nederlandera, suediera, daniera, norvegiera, poloniera, errusiera, txekiera eta

eslovakiera, bulgariera, serbokroaziera, hungariera, errumaniera, albaniera, katalana ® gaztelania, euskara ® gaztelania, galiziera ® gaztelania, hainbat hizkuntza ® katalana, hainbat hizkuntza ® euskara eta hainbat hizkuntza ® galiziera.

Itzulitako egileen gaineko sarreretan, itzulitako egilearen biografia txiki bat dator aurrena, irteerako kulturen duen tokia nabarmenduz; eta gero, zer lan itzuli dioten eta esanguratsua izan daitekeen lan baten azterketa txiki bat. Egileak testuinguru jasotzailean izan duen harrera ere aipatzen da (kritikak, beste idazle batzuegan izandako eragina eta abar). Lan anonimoen sarreretan, azkenik, jatorriko testuinguruan izan duen tokia nabarmentzen da, eta haien itzulpenak aztertzen dira (bertsioen deskribapen zehatza ematen da, jatorriko lanarekiko harremana, eragin dituen kritikak, eragin badu, eta, oro har, dena delako lanak testuinguru jasotzailean izan duen eragina).

Eremu jasotzailea, berriz, honela antolatatu dugu: Espainiako Erdi Aroa (koordinatzailea: Carlos Alvar), Urrezko Mendek (Josep Maria Mico), XVIII. mendea (Maria Jesus Garcia Garrosa), XIX. mendea (Luis Federico Diaz Larios), XX. mendea (Miguel Gallego Roca), katalana (Enric Gallen), galiziera (Camino Noia) eta euskara (Karlos del Olmo). Atal horretan ere hiru eratako sarreak ditugu: itzultzaileak, itzulpen eragile eta bitartekariak eta, azkenik, literaturaz kanpoko itzulpen motak. Itzultzaileen gaineko sarrerak erabakitzeke erabili den irizpidea da lanaren kalitatea, garrantzia historikoa edo itzultzailearen izaeraren indarra (esate baterako, idazle, politikari edo intelektual gisa inportanteak izatea; itzulpengintzaren

sailetik kanpora ere nabarmendu diren pertsonak izatea, alegia). Sarrera bakoitzean, berriz, izango duguna da itzultzailearen biografia labur bat; itzultzaile gisa egiten duen jardueraren forma eta edukia, bere garaiko itzulpengintzaren egoerarekin, idazle original gisa (hala bada) duen jarduerarekin, bere garaiko itzulpengintzaren gaineko ideiekin eta abarrekin lotuta; bere itzulpenen gaineko informazio bibliografikoa (batzuek zehatz eta mehatz deskribatuta, hala badagokio), eragindako kritiken aipamena eta abar; eta bigarren mailako iturrien aipamena eta dagokion bibliografia kritikoa. Bestetik, itzulpen eragileen eta bitartekarien gaineko sarreretan, editoreak, argitaletxeak, itzulpen bildumak edo sailak, itzulpengintzarekin lotutako erakundeak, itzulpen sariak eta itzulpenaren teoriarriak, kritikoak eta ikerlariak izango ditugu. Azkenik, literaturaz kanpoko itzulpen motetan, honako hauek izango ditugu: zientzia eta teknikaren itzulpena, ekonomiaren itzulpena, zinpeko itzulpena, informatikako testuen itzulpena, itzulpena eta hizkuntzen irakaskuntza, itzultzaileen prestakuntza, itzulpenaren gaineko ikerketa, itzulpenaren laguntzak eta sariak, itzulpena eta argitalpen merkatua, itzulpenaren profesionalizazioa, interpretazioa.

Guk dakigula, ez da hiztegi entziklopediko hau bezalako besterik, nahiz eta badiren antzeko batzuk. Denetan antzik handiena duena *Encyclopedia of Literary Translation into English* da, Olive Classek (2000) argitaratua. Alfabetoaren ordenaren arabera aurkezten du errepertorioa hark ere, baina bi gauza hauengatik behintzat bereizten da: bat da kontzeptu teorikoen gaineko sarrerak izatea (eta horiek ez dira ingeleserako itzul-

penaren barrutikoak bakarrik), eta, bestea, jatorrizkoaren alderantz begira izatea (egile atzerritarrak sartzeara, alegia, eta ez itzultzaileak). P. Francek (2000) argitaratutako *The Oxford Guide to Literature in English Translationen*, berriz, «Teoria eta historia» izeneko lehen zati bat dugu, hiru ataletan banatua: alderdi teorikoak, bilakaera historikoa eta testu motak (nahiz eta egokiagoa litzatekeen generoak esatea, zeren testu literarioak baitira denak). Atal bakoitzak epigrafe batzuk ditu, bakoitza egile batek sinatua. Lehen zati hori, edukiari eta antolaketari begiratuz gero behintzat, monografia kolektibo bat izan zitekeen, literatur itzulpenaren gainekoa, oro har, eta ingeleserako literatur itzulpenaren historiaren gainekoa. Liburuaren bigarren zatia “literatura itzulua”ri buruzkoa da. Hamasei atal ditu, hizkuntzaren arabera bilduak (eta beste bat gehiago Bibliaren itzulpenaren gainekoa). Beraz, ez dago hiztegi entziklopedikotzat jo-

tzerik. Gure hiztegiaren asmoa, berriz, kontsultarako tresna bat eskaintzea da, atzerriko egileen harrerari nahiz harrera hori gauzatu duten itzultzaileei buruzko informazio bateratua aurkeztuko duena. Batzuk eta besteak, hau da, igorleen eta hartzaileen guneetatik heldu diren ahotsak, elkarrekin konbinatuta aurkezteak kontsultarako moduko lan bat egiteko bidea ematen digu, gure literaturan atzerriko eraginen eta iturrien arrastoa ateratzen aritzen diren konparatzaile guztientzako interesgarria izatea espero dugun lana.¹ Jakina, baldin eta literatura nazional bat —balio beza kontzeptu horrek orain, dituen muga metodologikoak goiti-beheiti— inolaz ere ez dagoela atzerriko beste literatur tradizio batzuekin lotzen duten espazio eta denboratik aparte ulertzerik jotzen badugu, gaztelania, katalan, galiziera eta euskarazko literatura ikertzen dutenei ere lagunduko diela pentsatu beharko dugu.

1. Bi kontzeptu horien arteko bereizketa klasikoa jakin nahi izanez gero, ikus bedi, adibidez, Soullier y Trubetzkoy (1997). Eraginen arrastoak igorleetatik jasotzaileengana eramaten gaitu. Iturrien arrastoak, berriz, beste aldera.

BIBLIOGRAFIA

- Classe, O. (arg.) (2000). *Encyclopedia of Literary Translation into English*. Michigan_ Fitzborn Dearborn Publishers. 2 liburuki
- France, P. (arg.) (2000). *The Oxford Guide to Literature in English Translation*. Oxford: Oxford University Press.
- Hoof, H. van (1991). *Histoire de la traduction en Occident*. Paris: Duculot.
- Hoof, H. van (1998). «Esquisse pour une histoire de la traduction en Espagne». *Hieronymus Complutensis* 6-7. 9-23.
- Lafarga, F. y L. Pegenaute (argk.) (2004). *Historia de la traducción en España*. Salamanca: Ambos Mundos.
- Navarro Domínguez, F. (1996). *Manual de bibliografía española de traducción e interpretación*. Alacant: Universidad de Alicante.
- Pym, A. (1998). «Spanish Tradition». En M. Baker (arg.). *Routledge Encyclopedia of Translation Studies*. London: Routledge. 552a-563a.
- Pym, A. (2000). *Negotiating the Frontier. Translators and Intercultures in Hispanic History*. Manchester: St. Jerome.
- Ruiz Casanova, J.F. (2000). *Aproximación a una historia de la traducción en España*. Madril: Cátedra.
- Sánchez Montero, M^a del C. (1998). *Lineamenti di storia della traduzione in Spagna*. Trieste: SSLMIT-Università degli Studi di Trieste.
- Santoyo Mediavilla, J.-C. (1987). *Traducción, traducciones, traductores. Ensayo de bibliografía española*. Leon: Universidad de León.
- Santoyo Mediavilla, J.-C. (1996). *Bibliografía de la traducción en español, catalán, gallego y vasco*. Leon: Universidad de León.
- Soullier, D. y W. Trubetzkoy (zuzk.) (1997). *Littérature comparée*. Paris: Presses Universitaires de France.
- Valero Garcés, C. (2000). «Translating as an Academic and Professional Activity». *Meta* 45 (2). 379-383.

**Articulando la historia de la traducción en España:
la construcción de un diccionario enciclopédico de
corte histórico**

Esta obra, concebida como un gran diccionario enciclopédico, pretende reunir siguiendo un orden alfabético tanto a traductores como a autores extranjeros. Aunque la mayor parte de las entradas están constituidas por antropónimos, también se ha previsto la inclusión de entradas generales sobre las principales literaturas nacionales (así, la italiana o la polaca, por ejemplo), sobre la traducción del catalán, gallego y vasco (respectivamente) al castellano y también sobre la traducción (desde cualquier lengua, incluyendo el castellano) hacia el catalán, gallego y vasco, además de entradas sobre cuestiones no literarias. La preparación del volumen ha supuesto una ingente labor de planificación y organización, pues de las 850 entradas de que constará se han ocupado unos 400 redactores, coordinados a través de un comité asesor compuesto por reconocidos especialistas, que se han encargado de establecer el catálogo de entradas y de contactar con los redactores que consideraban más reputados para prepararlas, además de supervisar su labor. Ha sido particularmente delicada la asignación de espacios a cada uno de los ámbitos, en función de su importancia relativa, y la asignación particular de espacios a cada entrada, siguiendo el mismo criterio. Uno de los aspectos más fuertemente subrayados, en lo que respecta a las entradas de autores extranjeros, ha sido que la dimensión de su presencia en la obra —de hecho la propia legitimidad de su inclusión en el *Diccionario*— había de venir medida no por su trascendencia en su propio contexto literario o en un canon universal sino por su influjo o impacto en el contexto receptor.

**Retraçant l'histoire de la traduction en Espagne :
élaboration d'un dictionnaire encyclopédique de
genre historique**

Cet ouvrage, conçu comme un grand dictionnaire encyclopédique, prétend réunir, en suivant un ordre alphabétique, les traducteurs et les auteurs étrangers. Bien que la plupart des entrées correspondent à des anthroponymes, on a également prévu des entrées générales se référant aux principales littératures nationales (telles que l'italienne et la polonaise, par exemple) et à la traduction du catalan, du galicien et du basque (respectivement) vers l'espagnol, ainsi que des données ayant trait à la traduction (à partir de n'importe quelle langue, l'espagnol inclus) vers le catalan, le galicien et le basque, tout comme des sujets non littéraires. La préparation de cet ouvrage a exigé un énorme travail de planification et d'organisation. En effet, les 850 entrées dont se compose ce dictionnaire, ont été rédigées par près de 400 rédacteurs, coordonnés par un comité de conseillers, composé de spécialistes reconnus, qui se sont chargés d'établir le catalogue des entrées et de se mettre en contact avec les rédacteurs qu'ils estimaient les plus aptes dans chaque domaine, en plus de superviser leur travail. L'une des tâches les plus difficiles a été celle d'assigner les espaces correspondant à chaque domaine, en fonction de son importance relative, ainsi que l'attribution particulière des espaces de chaque entrée, en suivant toujours le même critère. En ce qui concerne les auteurs étrangers, on a surtout insisté sur le fait que l'importance de leur présence dans l'ouvrage – en fait la raison même de leur inclusion dans le *Dictionnaire* – devait correspondre, non pas à leur transcendance dans leur propre contexte littéraire ou en fonction d'un modèle universel, mais plutôt à leur influence ou à leur impact dans le contexte récepteur.

**Putting Together the History of Translation
in Spain: Creating an Historical Encyclopedic
Dictionary**

This work, which is intended to be an extensive encyclopedic dictionary, includes both translators and foreign authors arranged in alphabetical order. Although most of the entries are names of people, there are also general entries on the major national literatures (Italian literature and Polish literature, for example), entries on both translation from Catalan, Galician and Basque into Spanish and translation (from any language, including Spanish) into Catalan, Galician and Basque, and entries on non-literary issues. The preparation of the volume involved tremendous planning and organization since the 850 entries that comprise it were written by 400 writers coordinated by an advisory committee of recognized specialists, who were charged with establishing the list of entries, contacting the most renowned writers to prepare them, and supervising their work. Assigning a specific amount of space to each field according to its relative importance was a particularly delicate operation, as was assigning a specific amount of space to each entry, following the same criterion. With respect to entries on foreign writers, one of the most important factors was that the dimension of their presence in the *Dictionary* – indeed, the very legitimacy of their inclusion in it – had to be measured not by their significance within their own literary context or in a global canon, but by their influence or impact on the reader.